

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Scape Roomaren tematika urtero aldatuko dugu, tematikaren hautaketan bezeroak parte hartzeko aukera izango du, sare sozialetan egindako inkestentan bidez. Horrela, bezeroa parte hartzaile sentituko da, balio erantsia sortuz. Gainera, tematika urtero aldatzen denez, gure scape roomera behin baino gehiagotan etortzeak merezi du.

Bestalde, talde desberdinentzako tarifa bereziak izango ditugu, kopuru eta adinaren arabera. Horrez gain, bezeroa bigarren aldiz datorrenean beherapen eta promozio desberdinak jasotzeko aukera izango du. Gainera, familia ugaria edo gazte txartela dituzten pertsonentzat deskontuak egongo dira.

Bezeroak gurekin harremanetan jar daitezten, webgune bat irekiko dugu non sarrerak eros daitezkeen. Gainera, bezeroek iradokizunak bidal diezazkigukete. Are gehiago, pertsona bat izango dugu eskakizunak kontuan hartzeko.

